



BARREN
TOKIKOM

mendaro
ikastola



Mendaroarrak hazten eta hezten

10 EGUN KIA
ESKAINZA ERREPIKA EZINAK EKAINAREN 6TIK 17RA

Hibridoak barne



The Power to Surprise

KIA 15 NADAL
ANOS JUNTOS

Artur izazua promazio hasen baldintzak eta eskaintzak www.kia.com helbidea. Penintsulako, Balaieretako, Gaurako eta Ibilbiko kantreresario ofizietarako bali du eskaintzak.

NAIA CAR
Apalategi auzoa, 1
Eibar. Gipuzkoa

www.naiacar.com

Tel.: 943 70 70 33

Heziketa Zikloen Diploma eta Sari banaketa Ekitaldia
IMH, ekainak 13, 17:30ean

Sariak

IKASLE OHI AIPAGARRIA / IKASLE AIPAGARRIA / ELGOIBARKO IKASLE AIPAGARRIA
IKASLEEN ERRONKA ETA JARRERA AIPAGARRIAK

**Enpresa
Babesleak**



DANOBATGROUP



PIXEL SISTEMAS



Enpresa kolaboratzaileak:

AGME - ALCORTA FORGING GROUP - BASOA - BERKOA - BRONYMEC
CODESYNTAX - DOMUSA - CALEFACCIÓN ECENARRO - ETXE-TAR - FAGOR AUTOMATION
IBARMIA - ILS INDUSTRY LANGUAGE SERVICES - IKASI - LAIP - MANUFACTURAS HEPYC
MAPFRE ERMUA - MAZA - PAMPO - OJMAR - RENISHAW - RICOH
SARRALLE - ROYME - TECNOMECA - TXORIERRI POLITEKNIKOA - URKOTRONIK

Summer intensive

KET, PET, FCE eta CAE

Ingeleseko azterketarako prestakuntza berezia.

12-18 urte bitarteko gazteentzat

Uztailaren 1etik 26ra

(batxilergoko ikasleentzat berezia ekainean)

40 orduko ikastaroa.

Goizero 2 ordu.

Taldeak: 6-10 gazte.

Lekua: IMH.

Prezioa: 330 €

Frantseseko eta Alemaneko 40 orduko ikastaroak.

ILS Industry Language Services
Azkue Auzoa 1 (IMH)
Uparitzaga, 12 behea
ELGOIBAR Gipuzkoa
T. 943 744 040 E. ils@ils.es
www.ils.es





Aukeratzeko modua aukeratzeaz

arteko bat bozkatu dezake soilik, bietatik bozkatuena izango da aukeratua (Frantziako hauteskunde presidentzialetan bezala). Hirugarren sistemaren arabera, lehen bueltan, boto gutxien ateratzen duen hautagaia kanporatua da. Bigarren bueltan, geratzen direnen artean boto gutxien ateratzen duena da kanporatua. Eta horrela, hautagai bakarra geratu arte, aukeratua izango dena (Madrildarrei galdetu egoitza olinpikoa nola aukeratzen

den!). Laugarren sistemaren arabera, bazkide bakoitzak bost hautagaiak ordenatu behar ditu lehentasunaren arabera eta 4 puntu eman lehenengoari, 3 puntu bigarrenari,... eta 0 puntu azkenari. Puntuen batura handiena lortzen duena izango da aukeratua (Eurovisión, jakina!). Azkenik, bosgarren sistemaren arabera, hautagaien arteko ligaxka bat jokatu behar da. Hautagaiak binaka hartu eta "partidak" jokatu dituzte, "partida" bakoitzean, bazkide bakoitzak, bi hautagaietako bat bozkatu beharko duelarik. Boto gehien lortzen duenak irabaziko du "partida". "Partida" irabazteagatik 2 puntu, berdintzeagatik puntu 1 eta galtzeagatik 0 puntu hautagai bakoitzari. Denen kontra "jokatu" ostean, puntu gehien dauzkana izango da aukeratua (hau ere ezaguna, ezta?). Eta orain esan, irakurle ausart hori: zein da aukeraketa sistema justuena? Ez pentsa! Emaizak oso desberdinak izan daitezke!

"Eta orain esan, irakurle ausart hori: zein da aukeraketa sistema justuena? Ez pentsa! Emaizak oso desberdinak izan daitezke!"

Demagun bost hautagai aurkeztu direla auzo elkarte baten lehendakari-ritzarako. Nola aukeratu bazkideen iritzia errespetatuz? Hona bost aukeraketa sistema arrazoizko. Lehenengo sistemaren arabera, bazkide bakoitzak hautagai bat bozkatuko du eta bozkatuena izango da aukeratua (oso sistema erabilia). Bigarren sistemaren arabera, lehenbiziko bueltan bazkide bakoitzak hautagai bat bozkatuko du, eta bi aukeratuena bigarren bueltara pasako dira. Orduan bazkide bakoitzak bi horien



BARREN

ARGITARATZAILEA:



ELGOIBARKO IZARRA
Euzko Lehenen Topagunea

Kalebarren plaza, 2 - 20870 ELGOIBAR

943 744 112

Publizitatea: 943 743 704

barren.publi@elgoibarkoizarra.eus

barren@elgoibarkoizarra.eus

www.barren.eus

BARRENek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarki lekuz aldatzeko eskubidea. BARRENek ez du bere gain hartzen Iritzia, Hitz eta klik eta eskuizak ataletan adierazitakoen erantzukizunik. **KOORDINATZAILEA** Ainhoa Andonegi **KAZETARIAK** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia **HIZKUNTZA ARDURADUNA** Ainara Argoitia **PUBLIZITATEA** Leire Rubio **MAKETATZAILEA/DISEINATZAILEA** Zalao Amaiz **ATARI DIGITALEKO ARLO TEKNIKOAREN ARDURADUNA** Aitor Lauzirika **ADMINISTRARIAK** Amaia Arrizabalaga, Nerea Osoro **KOLABORATZAILEAK** Ibon Serrano, Eire Vila, Manu Sanchez, Iosu Juaristi, Iñigo Lamelas, Jose Luis Azpillaga, Julen Ansola, Edurne Izagirre, Paula Heras, Enetz Ezenarro, Ander Soraluze, Ane Astiazaran, Irati Agirreazaldegui, Jone Olaizola, Juan Luis Mugertza, Izaro Etxegibel, Iñigo Otaño **INPRIMATEGIA** Gertu Koop.E. **TIRADA** 4.885 ale **LEGE GORDAILUA** SS-1.038/92 ISSN 1138-1855

BABESLEA:



ELGOIBAR
UDOLA
AYUNTAMIENTO

LAGUNTZAILEAK:



MENDARO
2008



Gipuzkoako Foru Aldundia



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

(Hezkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua



BARRENEK ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dute. Ez ahaztu izen-abizenak, NANa eta telefonoa jarzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.eus

▶ ZAPATUAN MIARRITZERA!

Larunbatean, ekainaren 8an, Bakegileek estatu frantsesarekin abiatutako prozesua indartu, babestu eta Gobernu urrats berriak ematera bultzatzeko deia egin dute Miarritzen. Frantziako Gobernuak Frantziako espetxeetan sakabanatuak ziren presoen zati handi bat Mont de Marsan eta Lannemezaneko espetxeetara hurbildu dituen arren, oraindik ere badira askatu beharreko korapiloak. Modu integralean konpondu nahi dute euskal presoen afera Bakegileek; horretarako, herritarren babes eta bultzada kalean erakustea ezinbestekoa da, 2017ko abenduan Parisen egin genuen moduan. Konbentziturik gaude, gainera, han ematen diren pausoei erraztuko dutela, baita ere, estatu espainiarrean sakabanatuak dauden presoen egoerarekiko urratsak ematea. Hauek horrela, autobusa antolatu dugu Elgoibartik Miarrizera joateko. Larunbatean, 13:45ean eta King-Kongeko autobus geltokian jarri dugu hitzordua. Izenematea Jai Alai eta Iturri tabernetan egin daiteke. Animatu!

Sare Elgoibar

▶ ESKERRIK ASKO

Ikastolaren izenean eskerrak eman nahi dizkiegu joan den larunbatean, ekainaren 1ean, ospatu zen Ikastola Eguna antolatzen lagundu zuten guztiei: babesleei, gurasoei, ikasleei eta baita irakasleei ere. Goizean goiz hasi zen eguna, parte hartzaile guztiek elkarlanean bideratutako ekimenari esker, giro ederrean igaro genuen. Bestalde, azpimarratzekoa izan zen antolaketan fin-fin aritu ziren neska-mutilen lana.

Laguntzaileak: Agurtzane ileapaindegia, Ainhoa fisioterapia, Alire, Alkorta baikiloak, Ametsa, Aranburu bitxidenda, Armueta, Arriere de la Maison de Izaro, Asgi taberna, Astigarraga, Aupaze, Azkue, Bankoa, Beitia-Arriola hortz klinika, Belaustegi, Banco Santander, Barrene-

txea-Etxeberria, Beristain, Bernardo Ecenarro, Bizkor bizikletak, Bidelan, Bista Eder hortz klinika, Caixa, Castrillejo estankoa, C.D. Elgoibar, Danobat, Derry, Doña Mercedes, Ecenarro lentzeria, ElgoibArt, Elgoibarko Udala, Ene bada, Eroski, Fadek ileapaindegia, Fagor Automotion, Fotero okindegia, Gabi, Garate jantzi denda, Gautxo, Gaztelekua, Gobike Gorostiza, G&M, Haritz EDT, Idama, Ikasi, Ikus optika, Imanol Agirretxe, Ipintza, Iriondo kirolak, Jai Alai, Jasone Osoro, Jose Antonio ileapaindegia, Kala, Karamel, Karkizano, Kemen belardenda, Klitz, Kristina Garcia estetika, kiroldegia, Kutxabank, Lerun, Lurdes ileapaindegia, Maala, Magi bitxiak, Maria Urizar ileapaindegia, Markel Bergara, Marrubi fruta denda, Masumi's erropa denda, Mausitxa, Mekanosa, Merino zapata denda, Mikele, Moma, Muruamendiaraz, Noa, No mas vello, Olaia estetika, Pelegrin, Pilon, Pitxintxu, Rebeca arropa denda, Rosi ileapaindegia, Salento Sara jantzi denda, Sare fisioterapia, Sigma jatetxea, Siu fisioterapia Surya belardenda, Tanta, Taupada, The End taberna, TX4 gimnasioa, Txomin harategia Txillarre, Udal liburategia, Unceta, Urkotronik, Uzuri, Viento Sur, Xarlem kreazioak, Zazpi informatika, Ziarda harategia! Eskerrik beroenak parte hartu zuten guztiei!

Ikastola Eguneko Batzordea

▶ MENDAROKO EH BILDUK MENDAROARREI

Pasa den maiatzaren 26an aukera egin zenuten mendarotarrok: 451 boto EH Bilduri (%46,3), 412 boto EAJri (%42,3) eta 92 boto PSE-EEri (%9,45). Emaitzak argiak dira. Inoiz Mendaroko udal hauteskunde batzuetan zerrenda batek ateratako bigarren boto kopuru handiena lortu zuen EH Bilduk (2003an MTik 518 lortu zituen, %57,68). Eta herritarren agindua jarraituz, datorren ekainaren 15ean gure zerrendaburua, Enetz Ezena-

rro Arriola, Mendaroko alkatezarako hautagai aurkeztuko dugu. Bien bitartean Mendaroko EAJrekin eta PSE-EErekin harremanetan jarriak gaude, emaitzak ikusita, gai honen inguruan duten jarrera ezagutzeko.

Honekin lotuta beste kontu bat ere aipatu nahi genuke, egunotan prentsan irakurritako zenbait berriren inguruan. Ez zaigu ez egokia eta ez serioa iruditzen, mendarotarroi iritzia eskatu eta gero, Mendaroren interesekin zerikusirik ez daukaten irizpideen arabera aukeratzea Mendaroko hurrengo alkate zein izango den. Batek daki nongo bulego urrunetan hartuko den erabaki hori; Mendaro bertatik bertara ezagutzen ez duen jendeak erabaki ere. Kromo truke hutsa bailitzan.

EH Bildu Mendaro

▶ HERRI ESKOLAKO TXANPIKO IRAKASLEEI

2 urterekin hasi zuten gure umetxoek bidaia eder hau. Ez dugu ahaztuko lehenengo eskola egun hura! Urduritasuna, dudak, beldurrak... Baina egunak aurrera joan ahala, poliki-poliki gure mamu guztiak desagertzen joan ziren. Gure seme-alabei egunero eman diezuen babes, alaitasuna eta goxotasuna benetan eskertzekoa izan da.

Baina bidaia hura jada bukatzean dago, 4 urte ahaztezin hauei agur esateko unea iritsi da, eta triste gaude. Baina baita pozik ere. Pozik gure seme-alabak oso zoriontsuak izan direlako, pozik euskara maitatzen ikasi dutelako, pozik besteekiko begirunea landu dutelako, pozik aniztasunaren altxor preziatua zaindu dutelako, pozik triste sentitu direnean eskarada bat jaso dutelako, pozik eskolan lantzen diren balioak bereganatu dituztelako, eta baita ere zuek bezalako bidela-gunak izan dituztelako. Eskerrik asko, bihotz-bihotzez, Maite, Blanki eta Agurtzani.

Herri Eskolako guraso talde bat



Zuen kezak, galderak edo txalokak bidaltzeko: barren@elgoibarkoizarra.eus - 943 744 112



Kultur Etxe aurreko kateak kendu dituztenetik, kedozein lekutan aparkatzen du jendeak:

"Kultur Etxe aurrean kate batzuk zeuden lehen, eta horrek muga bat zehazten zuen. Autoek muga hori errespetatu egiten zuten, ka-



Sallobenterako bidean belarra oso luze dago:

"Udaberrian belarra asko hazten da, eta sarriago moztu

tearen kanpoaldean aparkatuz, eta trafikoa ere katearen kanpo aldetik bideratzen zen. Badira hilabete batzuk kate horiek kendu egin zituztela, eta sekulako anabasa sortzen da orain Kultur Etxe aurre horretan. Autoak Kultur Etxearen kontra aparkatuta ikusten dira noiznahi, atea bera ere oztopatzen dute batzuetan, eta auto bat baino gehiago ikusi izan dugu lehen katearen barruko aldean geratzen zen eremutik zirkulatzen. Ez dakit zein izan den kateak kentzearen arrazoia, baina uste dut funtzio garrantzitsua betetzen zutela. Hirigintza Saitetik ondorengo erantzuna eman dute: "Kendu eta ipintzeko pilonak jarri ziren Kultur Etxe parean, bertan antolatzen diren ekintzetan plaza bere osotasunean erabili ahal izateko. Kateak egon ez arren, pilonak daude eta autoek ezin dituzte pilona horiek gainditu. Hala ere, abisua pasatuko zaio udaltzaingoari".

beharra egoten da. Sallobenterako bidean ere badago belarra mozteko beharra. Errepideraino iristen da belarra hainbat gunetan, eta oinezkoak ezin izaten gara errepide bazterretik joan. Eskertuko genuke belarra mozteak. Mila esker". Hirigintzako arduradunek esan dutenez, Sallobenterako bideko belarra da herriko landa-auzoetatik lehenengoa eta gehien mozten dena, bide hori delako oinezkoek gehien erabiltzen dutena. Urtero finkatutako egutegiaren arabera mozten da, gainontzeko auzoetako eta herriko belarguneak ere moztu behar direlako.

Haizea emakume taldekoek liburutegiko arduradunei eskerrak eman dizkiete: "Eskerrik asko, Maria Eugenia eta Miren, aurtengo ikasturtean ere primeran portatu zaretelako gurekin. Literatura tailerra aurrera eramaten lagundu diguzue beste behin ere, eta ondo baino hobeto portatu zarete gurekin. Eskerrik asko".

LT-55VU73M LED
JVC TELEBISTA



449 €

4K - Smart TV - Bluetooth
HDR 10 - WI-FI - 2 USB

WM12N260ES
SIEMENS ARROPA GARBIGAILUA



379 €

A+++-%10 - 7KG KARGA
DISPLAY LED - 1200 RPM
iQdrive motorra
Pausa+karga funtzioa -waterperfect

KG36NVW3P
COMBI SIEMENS HOZKAILUA



549 €


LED argiztapena
Hezetasun kontrolatzen duen Hyperfresh kaxoia:
fruta eta barazkientzako berezia
No frost - 186 cm-ko altuera
324 litroko kapazitatea

Bernardo Ezenarro kalea norantza bakarrekoa izango da aurrerantzean



Aste honetan hasi dituzte Bernardo Ezenarro kalea berrurbanizatzeko obrak, eta aldaketen artean aipagarriena noranzkoaren aldaketa izango da. Gaur egun trafikoarentzako bi norabide ditu kaleak, baina obrak amaitu ostean, ambulatortik gora doan aldapa norantza bakarrekoa izango da. Eremitan espaloia zabaldu egingo dute, eta 1,5 metro neurtzetik 2,5 eta 3 metrora pasatuko da. Horrez gain, bidearen alde batean aparkalekuak sortuko dituzte, bidea estutuz. Horregatik izango da norantza bakarrekoa. Bernardo Ezenarro kalea berrurbanizatzeko proiektua 2018ko aurrekontu parte-hartzaileen prozesuan boto gehien jaso zuen hirugarren proiektua izan zen, Bolatokia berrurbanizatzeko eta Urazandi eta Aizkorri lotzeko oinezkoen pasealekua egokitzeko proiektuen atzetik. Udalak guztira 50.070 euro (BEZa kanpo) erabiliko ditu lan horiek egiteko, eta aurreikuspenen araberak, bi hilabete amaituko dituzte obrak.

Irailean hasiko dituzte Bolatokia berritzeko obrak



Irailean hasiko dituzte Bolatokia berritzeko obrak, eta ondo bidean, hiru hilabete amaituko dituzte lanak. Udalak 164.847 euro erabiliko ditu ingurune hau berritzeko, eta besteak beste, erdiko aldean dauden eskailerak kenduko dituzte, oinezkoentzat plaza itxi bat sortzeko. Espazioak harmailak ere izango ditu. 2018ko aurrekontu parte-hartzaileen prozesuan boto gehien lortu zuen proiektua izan zen hau.

Elgoibarko zuhaitzak ezagutzeko irteera, bihar

Elgoibarko herrigunean dauden zuhaitzak ezagutzeko irteera antolatu du Morcaikok, eta Andoni Segundo izango da gidaria, *Elgoibarko zuhaitzak* liburuaren egilea, hain zuzen ere. Bihar izango da irteera. 9:30ean batuko dira Kultur Etxe aurrean, eta ibilaldiak hiru bat ordu iraungo ditu. Besteak beste, herriko zuhaitzak identifikatzen eta sailkatzen ikasiko dute. Izena emateko 636 994 798 telefonora deitu behar da.

Organo emailei buruzko informazio mahaiak bihar, Kalegoen plazan

Ekaineko lehenengo astean izaten da Organo Emileen Nazioarteko Eguna, eta horren harira, informazio mahaiak jarriko dituzte bihar goizean, Kalegoen plazan. 40 bat urte inguru dira dagoeneko Alcer elkarteak egun hau antolatzen duela, organoak ematen dituzten anonimo guztiei erre-konozimendua egiteko. Izan ere, organoak ematea, bizia ematea da, eta herritarrak behar horretaz kontzientzia hartzea nahi dute antolatzailuek. Espainia liderra da organo transplanteetan: iaz, 3.310 giltzurrun transplante egin ziren, 1.230 gibelegoak, 369 biriketakoak, 321 bihotzekoak eta 83 pankreasekoak.

Kantabriara irteera, jubilatuentzat

Comillas eta Santillana del Mar ezagutzeko irteera antolatu du Jubilatuen Biltokiak, uztailaren 10erako. Bazkideek 38 euro ordaindu behar dituzte, eta gainerakoek 43 euro. Izena emateko biltokiko bulegora joan behar da, astelehen edo ostiraletan, 11:00etatik 12:00etara.

Kontziliazio erantzukidearen aldeko ituna sinatu dute herriko hainbat eragilek



Elgoibarko Udalak kontziliazio erantzukidearen aldeko mahaia sortu du, herritarren bizi kalitatea hobetzeko helburuarekin. Etorkizunera begirako proiektua da, eta Elgoibar parekidegoa egitea du oinarri. Horretarako, herriko elkarte, sare, eta proiektuen arteko elkarlan eta sinergiak aprobetxatuko dituzte, beharrak bateratu eta modu egokian koordinatzeko. 2019-2020 epealdian landuko dute proiektua, eta sentibilizazioa, formakuntza eta ezagutza areagotzeko ekintzak jarriko dituzte martxan. Eguaztenean sinatu zuten ituna ondorengo eragileek: Ane Beitia alkateak, Raquel Agirre Herri Eskolako zuzendariak, Olatz Albarran Ikastolako administrazioburuak, Iñaki Odriozola Institutuko zuzendariak eta Naiara Martin Elgoibarko Izarrako Atxutxamaikako arduradunak. Egitasmo hau irekia da, eta herriko elkarte, ikastetxe eta enpresa guztiek hartu dezakete parte.

Babes Ofizialeko 47 etxebizitza egingo dituzte Olasoaten, eta izena emateko epea zabalik dago

Babes Ofizialeko 47 etxebizitza egingo dituzte Olasoaten, salmentarako. Izena emateko epea zabalik dago ekainaren 24ra arte. Zozketan parte hartu ahal izateko, Eusko Jaurlaritzako Etxebide egitasmoan alta emanda egon behar da. Garaje eta trastelekua izango dituzte etxebizitzek, eta 122.462,63 euro eta 169.742,90 euro bitarteko prezioa izango dute.



Doako WiFi sarea jartzeko laguntza jasoko du Udalak

Europako Batasunak Europako 3.400 herrirekin osatutako zerrenda argitaratu du, eta herri horietako bakoitzak 15.000 euroko diru-laguntza jasoko du espazio publikoetan doako wifi sarea jartzeko. Herri horietako bat da Elgoibar. Plaza, parke, eraikin ofizial, liburutegi, museo edo osasun zentroak zehazten ditu Europako Batasunak wifia jartzeko espazio publikotzat. Udalek 18 hilabete epea dute wifi publikoaren instalazioa egiteko, horretarako baimenduta dagoen enpresa baten bidez. Internetarako sarbidea emango duen operadorea aukeratzea Udalaren ardura izango da. Lehen hiru urtetako mantenu kostuak ere Udalak ordaindu beharko ditu.

Txankakuaren txartela erabiltzeagatik, katilua opari

Txankakua merkatarik elkarrekin herrian erostera bultzatu nahi ditu herritarrek, eta horretarako, bezeroen fidelizazio kanpaina jarri du martxan. Hortaz, Txankakua txartelarekin egindako lehenengo erosketagatik katilu bat jasoko dute bezeroek. Ekainaren 1ean hasi zen kanpaina, eta uztailaren 15era arte iraungo du, edo katiluk agortzen diren arte. Txankakua jakinarazi du txartel hori erabiltzeak badituela beste abantaila batzuk ere: urteko sasoi batzuetan %5eko deskontuak egiten dituzte, erosketak bonuak eta zine edo antzerkirako sarrerak zozketatzen dituzte, erosketak hiru epetan ordaintzeko aukera dago, eta opariak ere banatzen dituzte tarteka.

Txartela doan eskuratu daiteke Txankakuko kide diren establezimenduetan, eta txartela erabili ahal izateko ez dago bankuz aldatu beharrik.



“Bizitza bete dit irakaskuntzak”

► **JUANI LOIOLA** MENDARO IKASTOLAKO LEHENENGO IRAKASLEA

Garagartzako ufal handietan galdu ez ziren ikastolako paper banakak eskuan hartuta dator elkarrizketara Juani Loiola (Mendaro, 1956). 1971. urteko akta baten orriak dira, Mendaroko ikastolaren sortze prozesuaren ingurukoak. “Hemen dauzkazu ikastola sortu zutenen izenak-eta. Ez nuke inor ahaztu nahi, meritua haiena da-eta!”, bota du aurkezpenak egin eta bat. 17 urte bete barik zituen Guruzpe elkartekoak ikastolako andereño izan ote nahi zuen galdezka etxera joan zitzaizkionean, eta 63 urterekin hartuko du erretiroa, ikasturte amaierarekin batera. Bizitza osoa eman du Mendaroko ikastolan lanean, eta mantala eskegitzea kostako zaiola aitortu du, begiak malkotan. “Eman eskerrak denei, mesedez. Jarri dakizun ondoen, ez dago-eta barbarik urte guzti hauetan inguruan izan ditudan guztiak eman didaten dena eskertzeko”.

- AINARA ARGOITIA -

◆ **Izenez, Juani edo Juanita. Eta abize- nez, andereño, Mendaron behintzat.**

Hala naiz askorentzat, bai. *Karkar*. Bizitza bete dit irakaskuntzak. Ba al dago hori baino gauza handiagorik? Mila esker zoriontsu egin nauzuen guztioi.

◆ **Denek ez dute nahi izaten herrian irak- kaste izatea. Zuk 47 urte egin dituzu.**

Eta gehiago dauzkat esperientzia onak txarrak baino. Herrian lan egitea ez da beti erraza, norberak ere ez duelako beti denekin asmatzen, baina kalean nabilenean jendeak maite nauela sentiitzen dut. Zoriontsu egin nau Mendaron andereño izateak. ‘Aspertuko zinen ba?’ galdetzen didate kalean, baina ez, ni ez naiz aspertu. Nekatu egiten naiz batzuetan, baina aspertu sekula ez. Bizitzako une gogorrenetan ere, gaixotasunagatik biziko nintzen ere ez nekien garaian, lanera joatea terapia izan da niretzat.

◆ **Bokazioz zara irakasle, hortaz.**

Bokazioa da hau, bai, baina berez irakasle izateko pausoa ez nuen bokazioz eman. Mojetan administrazio ikasketak bukatu berritan etorri zitzaidan aukera. Uda hartan Donostiara joatekoa nintzen Idazkaritza ikastera, baina Txomin Urbietara eta Txomin Longarte [Guruzpe kultur elkartekoak biak] etorri zitzaizkidan esanez Haur Hezkuntzako umeentzako ikastola sortu nahi zutela eta neu nahi nindutela andereño izateko. Ez dakit nola eskertu proiektu hartarako neu aukeratu izana.

◆ **Frankismo garaia zen. Euskara debe- katuta zegoen, eta 17 urte ez zenituen. Nola hartu zenuen eskaintza?**

Harriritua!. Nork esperoko zuen ba halarik!. 5 urtera artekoekin lan egiteko nahi ninduten, eta horretarako ez zen beharrezkoa Hezkuntzako agiririk izatea, baina gutxienez euskarako titulua lehen-

bailehen ateratzeko eskatu zidaten. Hala ere, Eibarko gau eskolan eman nuen izena, eta Iruñera joan nintzen gero azterketa egitera. Tarte horretan, Bergaran, UNEDen, Haur Hezkuntzako diplomatura sortu zuten eta eman nuen izena. Puerikultura ere egin nuen Eibarko Unibertsitate Laboralean. Horiek egin arren, ikusten nuen aurrerago ikasketa-titulua beharko nuela eta Unibertsitatean Sartzeko Hautapropa egitea erabaki nuen. Ez neukan, baina, eskola-graduaturik eta gabez eskolara joanda atera nuen, Eibarren. Egunez lan egin ondoren joaten nintzen ikastera, gure etxeko egoera ez zelako ona. Unibertsitatean Sartzeko Hautapropa eginda, Bergaran egin nuen Haur Hezkuntza, gabez eta asteburutan. Gogoratzen dut amorrarazita egoten nintzela baserriko lanengatik ikasi ezin nuenean. Gabez ikasten nuen, ohean, linternarekin. Amak garbi esan



zidan nahi nuena ikas nezakeela, baina neuk ordaindu beharko nituela ikasketak, etxeko ekonomiak ez zuelako gehiagorako ematen. Egia da ikastola sortu zutenek esan zidatela eurek ordainduko zizkidatela Haur Hezkuntzako ikasketak, baina ez zitzaidan bidezkoa iruditu. Ikastaroak, bai; ikastaroak denak ordaintzen zizkiguten orduan ikastoletan, eta udaro joaten nintzen neu ere Madrilera, Burgosera edo Bartzelonara ikastera.

◆ Euskaraz irakasteko eredu bila, kanpora?

Bai, hemen ez zegoen-eta. Hamabost egun egiten genituen kanpoan, eta bereziki Kataluniako ikastaroez oso oroitzapen onak dauzkat. Lan-metodologia gurearen oso antzekoa zen, oso aurreratua garai haietarako.

◆ Zer uste duzu bilatu zutela zugan?

Euskaltzalea nintzelako uste dut etorri zirela. Euskaltzaletasuna erabatekoa zen gure etxean. Ikasketa guztiak mojetan erderaz egindakoak baginen ere, gurean ez zen euskara ez zen besterik egiten.

◆ Zer oroitzapen duzu hasierako urteez?

Urte gogorrak izan ziren. Guruzpen zeudenen ekimenez sortu zen ikastola Mendaron, mojen eskolako lokal batean. Txomin Longarte izan zen ikastola sortzeko batzordeko presidentea eta Jose Mari Berasaluze idazkaria. Haiekin batera, Txomin Urbietak, Ignazio Garatek, Jose Angel Andonegik eta Santos Arriola zenak lan handia egin zuten. Felix Etxeberria izan

zuten aholkulari. Danobaten lankide zuten Andonegik eta Longartek, eta mojak konbentzitzera eta Elgoibarko ikastolak nola funtzionatzen zuen azaltzera ekarri zuten. Ordurako, Elgoibarren, Eibarren eta inguruko beste hainbat herritan bazeuden ikastolak eta niregana jo aurretik ere batzargari eginak zituzten isilpean herri horietako ordezkariekin. Andres Alberdi [Elgoibarko Ikastolaren orduko zuzendari pedagogikoa] eta Imanol Laspiur euskaltzalea (Bergara, 1929 - Eibar, 1998) ere ekarri zituzten gurasoei ikastola zer zen azaltzera. 16 umerekin ekin zitzaion eskolaurreari. Gelako atean, katekesia jarri zuten, ezin zuten beste modutan izan. Ikastola klandestinoa zen.

◆ Noiz izan zen hori?

1971ko irailean zuten zabaltzekoa ikastola, baina ezin izan zuten eta otsailean zabaldu zuten azkenean. Seme-alabak irailean eskolatzeak zituzten guraso batzuk zain ere egon ziren, haurrak ikastolan sartzeko. Hasierak inoiz ez dira errazak, baina ikastolaren hastapenak benetan izan ziren zailak. Zenbat negar egin ete nuen! Elgoibarko ikastolakoekin batzen nintzen metodologia ikasteko, eta izugarritzko laguntza izan zen hura niretzat. 17 urte egiteko nituen, eta andereño bakarra izanda, momentu askotan handia zen bakardade sentazioa ere, eta jakina, zailtasun asko eta askotarikoak izan genituen hasieran. Ez dakit nola eman nuen pausoa ere, garbi esateko. Uste dut euskaragatik egin nuela, eta baita, jakina umeekin lan egitea izugarri gustatzen zitzaidalako ere. Baina beti izan nuen kezka buruan: gai izango ote naiz gurasoek ikastolara ekarri dituzten ume hauek behar bezala prestatzeko? Elgoibarko ikastolako Marixabel [Aizpurua], Mari Juli [Konde]... andereñoek asko lagundu zitdaten. Babesa eta hauspoa izan nituen.

◆ Non izan zuten bere lehen egoitza Mendaroko ikastolak?

Mojen konbentuko gela batean. Felix Etxeberriaren laguntzarekin Ikastolen Federazioko lehendakaria zen Aita Lasarengana jo zuten ikastolaren sortzaileek, konbentuan lekua egin ziezaioten eska-

zteko. Geroago, baina, iritsi zen momentu bat ez ginela gelan kabitzen. 40 bat ume bagenezkan, 3-4 eta 5 urtekoak. Espazio arazoak geneuzkan, eta gainera, ni bakarrik ez nintzen gai talde hura zuzentzeko. Lokal eta andereño bila hasi ginenean, eta halaxe, Mari Jose Aranberri hartu genuen eta Mateonekora aldatu ginen lekuz, erreka ondo-ondora. Ikastolako matrikulazioak nabarmen handitu ziren, eta jakina, hein berean, mojetakoak, apaldu, eta horrek tentsioa areagotu zuen.

◆ Ikastolaren eskaintza, baina, Haur Hezkuntzara mugatzen zen, ala?

Bai, eta kezkatzen gintuen horrek. Bilera batean gurasoetako batek galdera ere egin zigun: 'Zer uste duzue haurrek 6 urtera arte dena euskaraz egin eta gero dena erdaraz izateaz?' Nik erantzun nion onena euskaraz jarraipena izatea zela, edo gutxienez 6 urtetik aurrera ere erdia behintzat euskaraz izatea, eta nire hitz haiek gaizki interpretatu zituen jende batek.

◆ Zer zen oker ulertu zutena?

Herriko umeak Elgoibarko ikastolara eraman nahi izatea egotzi ziguten, Elgoibarko Ikastolaren aldeko propaganda egiten jardutea. Gure asmoa ez zen hori, jakina. Egia da seme-alabek euskaraz ikas zezaten nahi zuten guraso batzuk umeak Elgoibarrera eramaten hasi zirela, baina euren kontura. Eta horrek mojen eskolako matrikulazioak jaitea ekarri zuen. Horren aurrean, Guruzpeko talde bat eta Angel Bazterretxea abadea batu eta euskarari Mendaron jarraipena nola eman aztertzen hasi ziren, umeak Elgoibarrera joaten hasiz gero Mendarok herri-izaera ere galduko zuela ikusita, eta hala, batzuek arrisku hori ikusten zutelako eta beste batzuek mojekin lotura zutelako, ikastola eta mojen eskola nola elkartu aztertzen hasi ziren. Oso bilera gogorrak izan ziren Guruzpen orduan. Gurasoek seme-alabek euskaraz ikastea nahi zuten, baina mojak ez zeuden prestatuta, eta ez ziren oso aldeko; asko sufritu genuen. Guruzpen zuzendaritzan zeuden gurasoen babes osoa izan nuen, baina dena uzteko tentazioa ere izan nuen une batzuetan, ezin nuela



laga sentitu arren. Nik, gainera, oso harreman ona izan nuen beti mojekin, euren ikasia nintzelako. Gurea ez zen propaganda politikoa, baina hala uste izan zuen jende batek. Garaia ere halakoxea zen: euskara debekatua zegoen, muturreko pentsakerak zeuden... Elkartu ginen, hala ere, eta traba eta zailtasun guztien gainetik, aurrera egin genuen.

◆ **Nolakoa izan zen elkartzea?**

Izan genituen gure tirabirak, pentsakeraz ere ezberdinak ginelako eta lan egiteko modua ere ezberdina genuelako, baina apurka-apurka ohitu ginen elkarrekin lan egitera, eta hori denon ahaleginari esker izan zen. Nik uste dut pauso handiena eman zela irakasle guztiak euskaraz emateko prestatu zirenean eta euskara Lehen Hezkuntzara ere zabaldu zenean.

◆ **Zer materialekin hasi zineten?**

Ez geneukan mahairik, ez geneukan besteek zuten materialik, baina bai oinarri-oinarrizkoa. Ikastola garbitzeko ez geneukan inor, dirua zegoenean bakarrik kobratzen genuen, baina materiala lortzeko ahalegin berezia egiten genuen, eta hezi genituen umeak, euskaraz, horma-irudien, jolasen eta lmanol Urbieta zenaren kantuek zoragarrien bidez. Irudimena eta sormena asko lantzen genituen gelan. Metodologian, gutxi gorabehera, Hautxoa, gaur Urtxintxa dena, jarraitzen genuen, eta Kataluniara egindako osteretatik ekarpen interesgarriak ekartzen genituen gero, gurean praktikan jartzeko. Kataluniako eskola-ereduak bazuen gurearen antzik. Idazketa-irakurketa prozesua beste modu batean lantzen hasi ginen. Ordura arte, ikasi behar zutelako ikasten zuten

umeek, derrigorrean eta buruz, bestelako aurre prestakuntzarik gabe, irakurtzeak eta idazteak zertarako balioko zien ulertu gabe.

◆ **Zer esango zenuke ikastolako lehengo guraso haiei buruz?**

Hamarrekoa emango nieke. Beste eskolan baino gehiago ordaindu behar zuten umeak ikastolan eskolatzeko, baldintza kaskarragoak geneuzkan guk, eta ikastolaren etorkizuna lausoa zen herriko beste eskolarenaren aldean. Ikastolako prestakuntzak etorkizunerako balioko ote zien ziurtasunik gabe sartu zituzten seme-alabak ikastolan, konbentzitura eredu hark bazuela etorkizuna, euskarak merezi zuela. Guruzpen zuzendaritzan egon zirenak ere nabarmendu nahi nituzke. Haiena bai izan zela apustua! Haiek bai izan zirela ausartak!. Lan handia egin zuten, dena eman zuten ikastolaren alde, jakinda herria kontra jartzeko arriskua izan zezaketela eta egindako ahalegina ezean gelditu zitekeela.

◆ **Garaiak aldatu dira, baina ikastolan zein izan da aldaketa handiena?**

Haurren interesak kontuan izatea. Ezberdin lan egiten dugu orain. Gaur, pentsatzera bultzatzen ditugu gehiago umeak eta emaitzak izugarriak dira. Erronka handia izan da niretzat azkeneko urteotakoa;

“Beti izan nuen kezka: gai izango ote naiz ikastolara ekarri dituzten umeak behar bezala prestatzeko?”

asko ikasi behar izan dut, baina prozesu oso aberasgarria izan da. Orain, entzun egiten diegu gehiago umei, helduok uste ez izan arren, umeek asko dutelako esateko. Ez dakite dena eta ezta dena ondo ere, jakina, baina badakite, eta gu laguntzaile gara haien ikaste-prozesuan. Aldatu den beste kontu bat arauena da. Gure ikasle garaiko zurruntasunetik arauak gaizki ikusiak dauden garaira salto egin dugu. Eta bai, ados nago: umeari askatasuna eman behar zaio pentsatzen eta sentitzen duena agertzeko eta eztabaidatzeko, baina horrek ez du esan nahi arauak egon behar ez dutenik. Arauak jarri egin behar dira, eta umeak jakin behar du arauak ez errespetatzeak ondorioa dakarrela. Aldiz emozioen gaian asko ikasi dugu, denon onerako.

◆ **Zer esan nahi duzu horrekin?**

Emozioak adierazte hori txarretsita egon dela urte askoan eta horrek kalte baino ez digula egin. Umea etor daiteke triste ikastolara gau txarra pasatu duelako, edo etxetik irten aurretikoan gurasoetako batekin haserretu delako berak sandaliak jantzi nahi zituelako eta gurasoak botak jantzi arazi dizkielako, edo etxeko giroa ez delako onena, edo... hori dena atera egin behar du, emozionalki ondo ez dagoena ez dagoelako ondo lanerako eta ezingo duelako aurrera egin, edo behar baino gehiago kostata egingo duelako. Bi erronka dauzkagu: emozioak eta harremanak kudeatzen ikasteko estrategiak landu behar ditugu, umeak arazoei aurre egiteko prestatu behar ditugu.

◆ **Zer ikasi duzu umeengandik?**

Maitasun asko dutela emateko. Hori,

eta guk ematen badiegu, umeek beti erantzuten dutela.

♦ **Ikastolari lotutako une gogoangarriren aipatu beharko bazenu...**

Gogorak, hasierakoak. Une gozo eta gogoangarriak, berriz, asko izan dira, eta ezingo nuke bat aukeratu. Esango nizuke zorteduna izan naizela izan ditudan lan-kideak izanda. Haur Hezkuntzan, jende askorekin lan egitea egokitu zait urte hauetan guztietan, eta asko ikasi dut irakasle belaunaldi gazteengandik. Talde ona egin dugu beti Haur Hezkuntzan eta hori ezinbestekoa da umeekin lan egiteko, irakasleok asko transmititzen dugulako eta umeek ordu asko egiten dituztelako gurekin. Horretarako, etengabeko prestakuntza ezinbestekoa da Hezkuntzan.

♦ **Zer aldatu da?**

Aldatu da bizimodua, aldatu dira gurasoak, aldatu dira herriaren ezaugarriak eta gure aisialdi-ohiturak eta horrek denak eragina izan du umeengan. Garai bateko umeen aldean, gaurkoek erreminta eta baliabide asko dituzte informazioa lortzeko, baina irudimenean atzera egin dute. Telebista aurrean ere ordu asko pasatzen dituzte 0-6 bitarteko umeek, eta igarri egiten da. Horrekin ez diet gurasoei ezeren errurik bota nahi; kontuz! Gurasoek ahal duten ondoen egiten dute beti, inork ez duelako maite umea gurasoek beste. Gertatzen dena da presaka bizi behar ero honek itota gaituela eta umeekin egoteko daukagun denbora mugatua denez, tarte horretan dena eman nahi izaten diegula eta hori ez dela beti egokiena. Haurrek maitasuna eta denbora ematea behar dute, beste ezeren gainerik.

Francesco Tonucchi pedagogoak esaten du umeak kalean jolastu behar direla, harriekin, makilekin, buztinarekin... eta Mendaron aukera asko daukagu horretarako. Balio handiagoa eman behar diogu jolasari eta irakurketari. Ipuinak oso erreminta baliagarriak dira haurren ikaste-prozesuan, eta animatuko nituzke gurasoak hurrei ipuinak irakurtzera, seme-alabak liburutegira eramatera, eta, hein berean, ipuin-kontalarien eskaintza in-

“Balio handiagoa eman behar diegu jolasari eta irakurketari. Ipuinak erreminta baliagarriak dira ikaste-prozesuan”

dartuko nuke. Eta beste kontu bat: Hezkuntza komunitatea denok osatzen dugula hartu beharko genuke kontuan. Irakasleok bakarrik ez gara ezer. Gurasoek eta irakasleok bat izan behar gara, eta arazo txikiena sortzen denean elkarrekin hitz egin, arazoa handitzen laga barik.

♦ **Zenbat sekretu entzun dituzu?**

Kar-kar. Sekretuak sekretu dira. Barre egin dut, bai. Behin pneumonia bat pasatu ostean etorri nintzen gelara eta ume batek sano-sano bota zidan: “Ai, ai, Juan! Berriz ere etorri zara zu ba gona bakero horrekin! Gaixotuko zara hurrengo ere!”. Beste batek nirekin maitemindu zela esan zidan, eta erantzun nion ezingo ginela ba bikote izan nik banuelako bikotekidea eta gainera urte askoren aldean genuelako berak eta nik. Eta orduan erantzun zidan: “Zu, lasai, baina. Zuk itxaron, ni haziko naiz-eta”. Urte batean, LHn gaztelera ematea egokitu zitzaidan. Gogorra egin zitzaidan, baina orduan ere izan nituen ahaztuko ez ditudan uneak. Behin, hortza irteteko zuen ume batek, halaxe esan zidan. *“Mira, pontro va a salir pendiente”*. Beste garai bateko kontuak dira horiek, jakina, gaur gaztelera errazago moldatzen direlako.

♦ **Euskarak eremu asko irabazi ditu ikastola sortu zenutenetik, baina dena ez da larrosa. Ikastolan bertan ere gero eta erdara gehiago entzuten da.**

Joera izugarria dute gazteleraz egiteko, baita Haur Hezkuntzan ere, eta pena handia ematen dit horrek. Ikastolako patioan ere barra-barra entzuten ditut umeak gaztelera, pentsa! Ikastolan dugun kezka handietako bat da gaur hori eta elkarrekin lan egitea dagokigu eragile guztioi, horri buelta emateko. Ahal den hizkuntza gehien ikasi behar dituzte

umeek, bai, baina guk ahal den leku guztietan euskaraz egin behar dugu, gurea delako eta gaztelera ez bezala, euskarak galtzeko arrisku handiagoa duelako.

♦ **Horrenbeste urtean eta horrenbeste umerekin, burukomin edo trantze txarrik ere izango zenuen ba, ala?**


Beti izaten dira arazoak dituzten umeak eta halako egoerak zailak dira kudeatzen, baina beti saiatu izan naiz gurasoei arazoan berri ematen, ahal den min gutxien emanda. Irakasleok gauza asko ikusten ditugu, eta orain, gela irekien sistemarekin, gehiago, bi begi barik zortzi ditugulako umeak behatzeko. Gauza batzuk esatea ez da erraza, eta ez dira momentu gozoak izaten inorentzat, baina gu umei laguntzeko gaude, eta arazoak isiltzea ez da laguntzeko bidea. Irakasleok ez gara gai askotan espezialistak eta ez gara nor umeen arazoei izena jartzeko, baina umeren bati aparteko zerbait igarri badiogu, gurasoei jakinarazteko betebeharrak morala dugula iruditzen zait.

♦ **Motxaila Eguneko bertso saioan erre-tiroa hartzeko puntuan zen herriko andereñoari kantatu zion Andoni Egañak. Ohitu al zara halakoetara?**

Izugarria izan zen. Ez nuen espero, baina Maialen [alaba] gaia azaltzen entzun nuenean sentitu nuen neuretzat zela. Eta hunkitu egin nintzen, eta nola! Orduan Egañak ez zekien aretoan erretiroa hartzeko puntuan zegoen irakasle bat zegoenik, baina kantuan entzun nuenean nire berri eman ziotela pentsatu nuen, esan ziotuenak oso neure sentitu nituelako. Bertso saioaren ondorengo egunetan denek aitatu zidaten gaia eta maitasun handia jaso nuen. Ez daukat eskertzeko hitzik.

♦ **Nola irudikatzen duzu zure azken eskola eguna?**

Buf! Uste dut negar egingo dudala [eta busti zaizkio berriro begiak]. Prestatu egin beharko naiz horretarako ere. Eguna iristen denean, ez naiz gai izango ziurrenik, eta muxu bana bidali nahi diet hemendik lankide izan ditudan guztiei, bai eta ikasle eta guraso guztiei ere.



Angel Bazterretxea hil da, 54 urtez Mendaroko abade izan dena eta herrigintzan hauspo eta akuilu izan den gizona

- AINARA ARGOTIA -

Mendaro herriak dituenak baino urte dezentez gehiago egin zituen Angel Bazterretxea *Keleok* Mendaron, abade. 1962ko urrian iritsi zen Mutrikutik, 26 urterekin. Saturrarango abade-etxea laga eta Garagartzako mojen komentuan hasi zen kapilau. Eta geroago izendatu zuten Azpilgoetako, Astigarribiako, Garagartzako eta Altzolako parroko, hurrenez hurren. Elizako ardurez gain, baina, beste ardura asko ere hartu zituen herrian, eta bereziki horregatik dute herritarrek horren maitea. Guruzpe elkartearen bueltan, Mendaro ikastolaren sorreran eta Mendaro herria sortzeko prozesuan egindako lana eta garai zailenetan herriko gazteekiko izandako ardura aitortu eta eskertu izan dizkiote herritarrek. Eliztarrek eta eliza zapaldu gabeek ere estimatzen zuten, eta horren erakusle da 2016ko abenduaren 4an, erretiroa hartu eta hilabete eskasera, herritarrek eman zioten omenaldia. Ordurako osasunez makal xamar zebilen eta ez zuen omenaldira joaterik izan, baina aldizkari hau erabili zuen omenaldira batu ziren guztiei grabazio bidez esker ona agertzeko.

Mikel Laboaren *Txoriak txori* kantua kantatu zioten herritarrek 2016ko omenaldian, askatasunari kantu egiten dion kantua, bere izaerarekin ondo ezkontzen zen kantua. Askea zen pentsakeraz, instituzio katoliko hertsiko parte izanda ere. Kritikoa zen bera parte zen instituzioarekiko eta "herriaren eliza" bultzatu nahi zutenen alde agertu zen behin baino gehiagotan, Eliza 2000 kristau mugimendu katolikoaren arrastora batuta. Herriarekin engaiatutako

elizan sinisten zuen, herriaren sufrimenduekin solidarioa zen elizan, garai berrien eragilea zen elizan, eta horregatik, beti ez zen eroso sentitu Elizaren hierarkiaren barruan. Halaxe aitortu zion aldizkari honi 2016ko urriaren 28an emandako elkarrizketan, Elizaren barruan eroso sentitu ote zen galderari erantzutean: "Askotan ez. Orain ez hainbeste, baina Elizan obedientzia, autoritatearekiko esaneko izatea, derrigorra zen. Aita santu, gotzai eta gainerako asko jaungoikoaren ordezkari ziren, eta haiena zen hitza; logikak, jakintzak eta zientziak ez zuten ezer balio". Besteei beti kontu eske ibiltzea, besteak etengabe epaitzen ibiltzea ez zituen gustuko: "Elizak erabili egin du infernuaren ideia, beldurraren teknika. Erabili balu sikiera mundu hobe bat eta justizia soziala bultzatzeko, bale, baina hamar egun bizi gara, geuk dauzkagun huts guztiekin, eta zer egingo dugu ba! (...) Nor gara gu inori kontu hartzeko!". Elizari "zabaldu" beharra ikusten zion, "herritarrengana gerturatu beharra": "Gu hezi gintuzten Elizak esaten zuenaren arabera, eta hori galdu da, edo gutxienez, bere lekura joan da, eta hori gauza ona da. Abadeek eta maisuek zuten egia. Apenas zegoen beste kulturarik, eta gure ezjakinean, hala bizi ginen, beldurrez. Bizi ere ez ginen barren! Dena zen bekatua. Denok hezi gintuzten erregela beraren neurrira, bakoitzaren ezau-garriak eta gaitasunak kontuan hartu gabe. Pentsa zenbat talentu galdu zen!". Bestelakoa zen bera. "Zuen izaeragatik eta herriaren alde egindako guztiagatik", etxeko zuten Mendaron, Rosa Mari

“Herria egin du, eta kultura eta askatasuna eman digu, geu izateko”

Arriolaren esanetan. Guruzpe elkar-
tearen hasierako urteetan eta ge-
rora elizako eguneroko jardunean

harreman estua izan zuen Arriolak Bazterretxearekin eta begiak busten zaizkio hari buruz ari dela: “Donangelek asko eman dio Mendarori, ikaragarri, eta ez fededunoi bakarrik. Zenbati lagundu ete die Mendaron! Zeukan dena eman du”, dio. “Aparteko persona izan da”, gehitu du Juanita Garatek. “Aita baten pare izan da niretzat. Ez dut haren pareko lagunik topatuko berriz. Eskuzabala zen. Zeukan jaka ederreana ere eman zion etxera eskean joan zitzaion bati, birritan jantzi gabe. Herritar asko joan dira haren etxera laguntza eske eta inor ez da esku hutsik irten handik. Diruz ere askori lagundu die”. Marta Jeanette Castillok, azkeneko bi urteetan zaintzaile izan duenak, honela definitu du, hunkituta: “Zerbait bazen gizon ona zen. Gertukoa, apala, zerbitzala, hitza betetzen zuena, eredugarria guztiz. Sekula ezingo diot eskertu nigatik egin zuen guztia, berak zuzendu zizkidalako paperak-ere”.

“Gizona izan da Donangel, gizon zintzoa eta konpromiso handikoa, herria maite zuena, eta egoera zailetan ere, Mendaroren alde beti aurpegia eman duena. Herri txikietan beti izaten da besteengatik jardun beharra, baina nekez topatuko duzu Mendaron Donangelen kontra ezer esango dizunik”, gehitu du Txomin Longartek. Guruzpe kultur elkartean, eta Mendaro Ikastola sortzeko prozesuan bereziki, eskuz esku jardun ziren biak lanean. “Ikastola sortzeko garaian ez zuen erraza izan mojekin harreman estua zuelako eta geuk eman genuen aurpegia, baina berak beti bultzatu gintuen”, esan du horren harira. Euskaltzalea zen, eta euskararen erabilera sustatzeko hamaika ekinbide abiatu eta bultzatu zituen Mendaron. Gau Eskola sortu zuen mojen komentuko lokal batean, euskaldunak alfabetatzeko premia ikusita, eta euskarako eskolak ematen jardun zen Agustín Ezenarro lagun hartuta. Euskararen normalizatorako garrantzitsu irizten ziolako ekin zion aldikari honetan kolaboratzeari ere. Urte luzez izan genuen *Zozoak Beleari* atalean kolaboratzaile, eta makina bat gutun trukatu zituen Alaitz Vives, Oihana Tarragual edota Iñigo Lazkano herrikiideekin. Baina hori baino gehiago ere izan da hedabide honentzat. Mendaroko historia bizia izan da Bazterretxea, Mendaroko erretratista informazio-iturri agortezina eta euskararen normalizazioan, akuilu.

Euskararen alde egindako guztiaz gain, Mendaroren herri-izatera sustatzeko egindako lana nabarmendu du Jose Agustín Arriola kintoak. Mendaro herria sortzeko batzordean elkarrekin aritu ziren biak, eta helburu horretan Bazterretxearen bultzada ezinbestekoa izan zutela nabarmendu du. “Arrastoa laga du ibili den leku guztietan”, dio. “Mendaroko eliza eta ermitak ere beragatik daude tente. Auzolanean konpondu zituen, bere ekimenez”, gehitu du.

‘DONAN’, ‘DONAL’ ETA ‘DONI’, GAZTEEN ARTEAN

Donan, Donal edo Doni izenez bataiatu zuten gazteagoek. “Ordura arteko distantziekin amaitu zuen. Gure pare jarri zen. Hainbesteko konfiantza geneukan, Donan zela guretzat. Ordura

arteko bekatu eta beldur kontuak amaitu ziren Donanekin. Askatasuna eman zigun; aukerak, konfiantza”, dio Joseba

Longartek. Gazteekin “harreman berezia” izan zuen. Azpilgoetako abade-etxea zena berritu eta hantxe, beheko solairuan, gazteentzako bilgunea sortu zuen, gazteek *Puti* izenez ezagutzen zutena. “Mahai batzuk jarri zizkigun, eta Ping-pong mahaia ere bai. Lanik gabe zeuden herriko gazte askorentzat elkargunea sortu zuen”. 80ko hamarkada zen, garai zailak. Langabeztasa handia zen, drogak sartzen hasi ziren eta belaunaldi oso bat galtzeko arriskuaren aurrean, “aukerak” sortu zituen Bazterretxeak. “Mendira eramaten gintuen, eta hamabostean behin, txandaka, Atoxara ere bai, bere R127 txikian. Errioxara mahatsa biltzera ere eramane zituen lanik gabe zeuden herriko gazte batzuk, eta cassetteak erosten zizkigun, musika entzun genezan. Deep Purple eta antzekoak berari esker ezagutu genituen guk. Modernoa zen, apurtzailea”. Ez dauka ziurtatzerik, baina drogaren eraginez eta Hiesaren erruz Elgoibarren adin bereko kuadrilla osoak hil ziren garaian, Angel figura garrantzitsua izan zela uste du Longartek, Mendaron inor ez zelako jausi. “Mesfidati begiratzen zioten guraso askok orduan, ez zeudelako ohituta halako abadeetara, baina orduan gazte gineno dena eman zigun Donalek”.

Bat dator Ina Iriondo ere. “Ruper Ordorikak kantatzen duen *On gizon* hori zen Donal, guk Donal esaten geniolako”. Oroitzapen onak dauzka Azpilgoetako lokalaz. “Behean elkargunea sortu zigun, eta goian, bi lokal atondu zizkigun: Lili Moon-en entsegu gela izan zen bat, eta bestea, sukaldea zuena, lizarpe espeleologia taldekoek erabili zuten”. Bazterretxeak emandako zine-emanaldiak ere ondo gogoan dauzka. “Andorriatik ekarri zuen Super 8 makina eta hari esker ikusi genituen guk *Los tres mosqueteros* eta halako filmak. Musika munduan ere berak barneratu gintuen. “AC/DC taldearen lehen cassettea ere berak erosi zidan, eta musika klasikoaren egile guztiak ere berari esker ezagutu nituen 16 bat urte nituela. Etxeko nuen, gurean bizi zelako eta zen modukoa zelako”. Eliza “zabaldu” zuen, eta Elizaren lokal guztiak utzi zituen herritarren beharretarako. Bazterretxeari esker, Trinitate basilizan antolatutako Trinipop musika jaialdiak ere ez ditu ahazteko Iriondok. 1996an izan zen estreinakoa, eta Lili Moon eta 6Nemen9 taldeek jo zuten. Bigarren edizioan, Po talde zumaiarra eta 6Nemen9 taldeak gonbidatu zituzten. “Geu ere harrituta geunden Donalen eskuzabaltasunarekin. Altarean jo zuten, eta garagardo bana banatu genien atean etorri zirenei. Bera ere etorri zen kontzertu aurretikoan zertan ari ginen ikustera”. Kontzertuetarako ez ezik biltegitzat ere erabili zuten Trinitate herritarrek, bai eta Garagartzako abade-etxea ere. “Gala gaurako ere abade-etxea erabiltzen genuen backstage modura eta handik hartzen genuen argia ere”. Elkarriketatu guztiek, izena eman dutenek eta izenik eman nahi izan ez dutenek ere, kontu bera nabarmendu dute. Mendaro ez zela gaur dena izango Angel Bazterretxearekin gabe. “Herria egin du, kultura eta askatasuna eman digu, geu izateko”, nabarmendu du Joseba Longartek.

Elgoibarko eta Soralezeko abesbatzekin emango du kontzertua Udal Musika Bandak gaur zortzi, Kalegoen plazan

Udal Musika Bandak kontzertu berezia emango du ekainaren 14an, San Bartolome parrokiako eta Soralezeko Ezoziako abesbatzekin. Soinu eta argiekin apaindutako ikuskizuna izango da, eta sorpresak iragarri dituzte arduradunek. Besteak beste, hurrengo egunean izango den Trinitateetako dantborradari egingo diote keinuren bat. Kalegoen plazan izango da emanaldia, eta aulkiak jarriko dituzte, saioa eserita ikusteko. Elgoibarko Udal Musika Banda orain dela lau urte hasi zen kalean kontzertu bereziak eskaintzeko egitasmo honekin, erakusteko Udal Musika Banda ez zela hilerio Herriko Antzokian ematen dituen kontzertuetara soilik mugatzen. Aurreko edizioak rock estilokoak izan dira, eta harrera oso ona izan dute herritarren partetik, baina aurtengoa desberdina izango da. Gorka Mujika zuzendariak



esan du ez dutela nahi egitasmo hau rock estiloarekin lotzea, eta horregatik erabaki dute aurten aldatzea. 22:30ean hasiko da musikaldia.

Jendetza batu zuen dantza modernoaren jaialdiak, Mendaron



Dantza modernoaren ikasturte amaierako jaialdia egin zuten joan zen barixakuan Mendaron, eta frontoia txiki geratu zen. 80 dantzariatik gora batu ziren oholtza gainean, eta frontoiko harmaila guztiak bete zituzten ikusleek. Naia Aizpurua, Lucia Dieguez, Jone Barandika eta Ana Alberdi dantza-irakasleekin urtean zehar ikasitakoa erakutsi zuten dantzariak, gaur egungo musikari ezagunen abestien erritmorak. Koreografia landuak eskaini zituzten, eta ikusleek gogotik gozatu zuten. Amaieran, protagonistak eta ikusleek pozik etxeratu ziren. Argazki gehiago eta bideoa: barren.eus

Sanbartolomeetako egitarauaren azala aukeratzeko lehiaketa

San Bartolome Jaian barruan bi lehiaketa jarri ditu mar txan Elgoibarko Udaleko Kultura Sailak, bata, haurrei zuzendutakoa, eta bestea, nagusiei. Nagusien kategorian 18 urtetik gorako edozeinek har dezake parte. Teknika libre izango da, eta lanak euskarri gogorrean aurkeztu beharko dira, 225mm X 225mm neurrian edo horren proportzionalan. Egile bakoitzak bi lan aurkeztu ahal izango ditu gehienez, eta lanak argitaratu gabeak izan beharko dira. Horrez gain, ezinbestekoa izango da ondorengo testua agertzea kartelean: *Elgoibar, San Bartolome jaiak 2019*. Irabazleak 700 euroko saria jasoko du.

Bestalde, haur kategoriako lehiaketan, 18 urtetik beherako elgoibartarrek har dezakete parte. Lanaren neurria eta teknika libre izango da, hala ere, ezin izango da erliebedun kartelik aurkeztu, ezta plastilinarekin edo zerrautsarekin egindakorik ere. Kasu honetan, dirutan izango ez diren sei sari banatuko dituzte. Bi lehiaketen kasuan, lanak Kultur Etxean aurkeztu beharko dira ekainaren 20ko 13:00ak baino lehen.



GERTU

ARABA EUSKARAZ 2019
Ekainak 16 • GASTEIZ

Autobusa antolatuta dugu
Arabako ikastolen aldeko jaiaren parte hartzeko.

- Irteera: 10:00etan (Sigmako autobus-geltokia).
- Itzulera: 19:30ean Gasteiztik.
- Prezioa: 11 euro (Elgoibarko Izarrako bazkideek 10 euro).
- Izen ematea: Elgoibarko Izarran.
- Azken eguna: ekainak 13, osteguna.




Dena prest dago Elgoibarko lehen Koplaldirako

Elgoibarko I. Koplaldia antolatu du Elgoibarko Iza-rrak gaur iluntzerako, Udalaren eta Danobaten laguntzarekin. San Bartolome parrokiaren atzeko aldean dagoen parkean izango da, Bolatokian, 21:30ean hasita. Euria eginez gero, Gaztetxean egingo dute.

Bertsolariak eta koplak izango dira protagonista nagusiak, baina musikarien parte-hartzea ere garrantzitsua izango da. Hauek arituko dira koplatan: Eli Pagola, Aitor Mendiluze, Onintza Enbeita, Miren Artetxe, Maider Arregi, Manex Agirre, Andoni Egaña, Odei Barroso, Aitor Bizkarra eta Uxue Alberdi. Musikaz, berriz, beste hauek arduratuko dira: Sinuöse Kultur Elkarteko Ander Mujika, Iban Urizar, Jon Gurrutxaga eta Patxi Zabaleta. Koplaldiko irabazleak Aitor Etxeberria artista mendaroarrak Elgoibarko I. Koplaldirako propio sortu duen eskultura jasoko du.



Aire Libreko margo lehiaketa antolatu dute biharko

Egur arte tailerrak aire libreko margo lehiaketa antolatu du biharko, Udalaren laguntzarekin. 18 urtetik gorako edonork hartu dezake parte. Interesatuek, 9:00etatik 10:00etara bitartean eman beharko dute izena, Kultur Etxeko sotoan. Goizean zehar Elgoibarrekin zerikusia duen margolana egin beharko dute, eta 13:00etatik 14:00etara entregatu beharko dute margolana, sotoan bertan. 14:30ean egingo dute sari banaketa. Irabazleak 800 euro jasoko ditu; bigarrenak, 500 euro, eta hirugarrenak, 300 euro. Saririk jaso ez duen herriko lanik onenari 150 euro emango dizkiote.



Kontzertua eman du Judas Argarate taldeak, Iker Amutxastegiren omenez



Judas Argarate musika taldeak kontzertua eman zuen domekan Kultur Etxeko sotoan, 2017ko martxoan auto istripu batean hil zen Iker Amutxastegiren omenez. Elgoibarko Rodisa enpresako langile batzuen artean sortutako taldea da Judas Argarate. Istripua eduki baino aste batzuk lehenago lanez aldatu zuen Amutxastegik, baina ordura arte Rodisan lan egin zuen, eta haren oroimenez antolatu zuten domekako kontzertua. Lagun giroan joan zen ekitaldia.

Alemaniko ikasleak izan dira Elgoibarren

Karlsruhe (Alemania) hiriko 19 ikasle Elgoibarren egongo dira aste honetan, Elgoibarko BHI Institutuak duen elkartruke programaren barruan. Elgoibarko herria bisitatu dute, herritarrei hainbat galdera egin dizkiete, eta pilotan ere jokatu dute, hemengo kirola dena ezagutzeko. Horrez gain, Deba, Donostia eta Zumaiako Flysha ezagutzeko itterak ere egin dituzte.



Omenaldiak eta lehia Bolari Egunean



Gipuzkoako 50. Hiru Txirlo Bola Joko Txapelketan aritu diren bolariak amaiera ezin hobea eman zioten bi hilabete eta erdiko lehiari, joan den asteburuan, Elgoibarren. Lehenik, Lehendakari Txapelketa jokatu zuten Aiastiako bolatokian. Bost kanporaketa gaingitu ostean, Santos Muñoz azkoitiarra eta Jabier Osoro elgoibartarra ailegatu ziren finalera, eta Floreaga taldeko bolaria gailendu zen. Gero, 90 bolari eta bola zale batu ziren Idortebeko San Pedro jatetxean egin zuten bazkarian. Gipuzkoako Bola eta Toka federazioaren laguntzari esker "sari potoloak" banatu zituzten bazkalostean. Hiru Txirlo modalitatean federatutako lagun bakoitzak oroigarri bana jaso zuen, Gipuzkoako txapelketak 50 urte bete dituela ospatzeko. Txapelketako sari bana-keta ere egin zuten, eta Bolari Eguneko hiru omenduei ere egin zieten aitortza: Jesus Mari eta Joxe Mari Azpiazu eta Julian Loiola izan dira aurtengo omenduak. Xabier Loiola *Armaxiok* bertso bana abestu zien omenduei eta Maria Luisa Zu-logak botatako irrintziarekin amaitu zuten ekitaldia.

Maite Maiorak 11. postuan amaitu zuen Zegama Aizkorri mendi maratoia

Elgoibarko eta Mendaroko mendi korrikalariak ere lehiatu ziren Munduko mendi maratoi ezagunenetakoa den Zegama-Aizkorri lasterketaren 18. ekitaldian, aurreko domekan. Emakumezkoetan Eli Anne Dvergsdal norvegiarra gailendu zen, 4:36:06ko den-



Arg.: Fotosu

borarekin, baina ez zuen ondu Maite Maiorak 2017an ezarri zuen errekorra (4:34:27), eta mendarorarraren markatik minutu i'erdia gelditu zen. Maiorak 11. postua lortu zuen aurtan, 5:10:02ko denbora eginda. Mayi Mujika elgoibartarrak ere lehen emakumezkoen artean sailkatzea lortu zuen, 17. postuan, hain justu ere, 5:25:30eko denborarekin. Gizonezkoetan proban lortzen duen bederatzigarren garaiena lortu zuen Kilian Jornetek (3:52:47). Gure ordezkariak dagokionez, Gorka De La Horrak lortu zuen emaitzarik onena 37. postuan sailkatu zen, 4:35:50eko denborarekin. Sailkapenak *barren.eus*-en.



Ion eta Janire Egaña Vela neba-arrebak Arabako Golf Txapelketako podiumean

Arabako Golf Txapelketa jokatu zuten aurreko asteburuan Larrabeako golf zelaietan, Legution, eta aurreko postuetan sailkatu ziren Ion eta Janire Egaña Vela neba-arreba elgoibartarrak, 21 urte ditu lehena, eta 15 urte, bigarrenak. Ion Egaña Velak sailkapen nagusiko bigarren postua eskuratzeaz gainera, lehen postua lortu zuen Arabako txapelketan. Janire Egaña Vela, berriz, hirugarren postuan sailkatu zen. Bata zein bestea Larrabea taldeko ki-deak dira eta Arabako Golf federazioan daude federatuta.

Elgoibar Xake Festa, ekainaren 23an

Elgoibarko xake taldeak umeentzako xake festa antolatu du ekainaren 23rako. Kultur Etxeko sotoan izango da (10:30), eta 14 urtera arteko umeek har dezakete parte. Izena emateko *Elgoibarchess@gmail.com* helbidera idatzi edo 637 737 113 telefono zenbakira whatsapp bat bidali. Aurreko egunerako, ekainaren 22rako, Olan Arkitektura xake azkar txapelketa ere antolatu dute. 60 xakelarientzako lekua egongo dela ohartarazi dute antolatzaileek. Izena emateko *Elgoibarchess@gmail.com* helbidera idatzi behar da.



Europako eskubaloi txapelketak jokatuko dituzte Loidik eta Urruzolak

Györ (Hungaria) hirian jokatuko dute junior mailako emakumezkoen Europako Eskubaloi Txapelketa, uztailaren 11tik 21era, eta Espainiako hautatzaile Imanol Alvarezek hamasei jokalariz osatutako azken deialdian sartu du June Loidi, Hotel Gran Bilbao Prosetecnisa Zuazo taldeko jo-



Arg.: RFEB

kalaria. Loidik senior mailako Espainiako selekzioarekin jokatuko berri du Munduko Eskubaloi Txapelketarako kanporaketa. Joan den maitzaren 31n jokatuko zuten joaneko partida, Antequeran, Islandiaren aurka, eta 35-26 irabazi zuten Espainiak. Atzo (ekainak 6) jokatuko zuten itzulerakoa Reykjavik-en. Kanporaketa gaitzen duen taldea Munduko Txapelketan lehiatuko da, abenduan, Japonian.

Bestetik, promesa mailako gizonezkoen Espainiako eskubaloi selekzioak Europa Open nazioarteko txapelketa jokatuko du Göteborg (Suedia) hirian, uztailaren 1etik 5era, eta Francisco Marti hautatzaileak deialdian sartu du Julen Urruzola elgoibartarra, Sanloko jokalaria.

Katalunia irabazle Lau Nazioen eskubaloi txapelketan



Kataluniako eskubaloi selekzioak bigarrenkoz irabazi du Emakumezkoen Lau Nazioen Eskubaloi Txapelketa, 2009an A Coruña (Galizia, Espainia) jokatutakoa ere irabazi baitzuen. Bigarrenkoz jokatuko dute txapelketa hau Elgoibarren, 2015eko ere IMH Kiroldegian jokatuko zutelako. Hamaikagarren edizio honetan, Kataluniak Galiziako selekzioa kanporatu zuen emozioz beteriko lehen finalerdian. Kataluniarrek bigarren luzapenean lortu zuten finalerako sailkatzea. 32-31 izan zen azken emaitza. Bigarren finalerdian tituluari eutsi nahi zion Euskadiko selekzioa kanporatu zuen Valentziakoak, 21-23ko emaitzarekin. Domeka goizean jokatuko zuten finalean 22-17 irabazi zion Kataluniak Valentziari.




Brontzezko bi domina Iker Calvorentzat Euskadiko txapelketan

Iker Calvo elgoibartarrak (argazkian esku-bikoa) Gipuzkoako igeriketa selekzioa ordezkatu zuen Euskadiko Eskolarteko Kirol Jokoetan, eta brontzezko bi domina irabazteaz gainera, Espainiako txapelketan lehiatzeko gutxieneko marka lortu zuen 200 metro bizkar eran, 2:28.65ko denborari esker. Eibar Igerixan taldeko igerilariak 200 metro bizkar eran eta 400 metro estiloetan irabazi zituen dominak, Santurtziko Mikel Trueba igerilekuan jokatuko zuten Euskadiko txapelketan. Espainiako joko eskolarretako txapelketa Tarragonan jokatuko dute uztailaren 18tik 21era. Aurrez, ekainaren 14tik 16ra, Pauen (Frantzia) lehiatuko da Calvo, Gipuzkoako igeriketa selekzioarekin.

Iriondo-Izagirre pilotariak Euskadiko txapeldun

Iker Izagirre elgoibartarrak eta Julen Iriondo mendarorak osatutako Lagunak pilota eskolako bikoteak Errendimenduko Gipuzkoako Txapelketa irabazi zuten apirilaren hasieran, eta Euskadikorako sailkatzea lortu zuten. Sestaoan jokatuko dituzte Euskadiko txapelketako partidak, aurreko bi asteburuetan. Bizkaiko bikote txapeldunari irabazi zioten lehenengo partidari eta Arabakoari bigarrenkoz, biak emaitza berberaz, 18 eta 9.



LANA.....

Eskaerak

Umeak edo adinekoak zaintzeko prest nago. Orduka edo etxeko langile moduan. ☎ 643 374 471

30 urteko esperientzia duen zaintzaile euskalduna, adinekoak zaintzeko prest. Titulua daukat. ☎ 660 511 781

Adinekoak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko prest nago. Etxeko langile moduan edo orduka. ☎ 697 665 452

Banaketa lanak egiteko edo portalak garbitzeko prest nago. Esperientzia daukat harrera lanetan. ☎ 688 698 854

Edozein lan egiteko prest nago. Orduka edo jardunaldi erdiz. Erreferentzia onak eta esperientzia ditut. ☎ 688 712 075

Adinekoak edo zainduko nituzke. Orduka edo asteburuetan. Garbiketa lanak egiteko ere prest nago. ☎ 631 870 590

Adinekoak zainduko nituzke. Orduka, asteburuetan eta gauzez ere bai. ☎ 632 229 972

Adinekoak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko prest nago. Etxeko langile moduan edo asteburuetan. Esperientzia. Berehala hasteko prest. ☎ 631 288 512

Umeak edo adinekoak zaintzeko prest nago. Orduka edo etxeko langile moduan. ☎ 612 531 623

Umeak edo adinekoak zaintzeko prest nago. Orduka edo etxeko langile moduan. ☎ 632 116 534

Adinekoak zainduko nituzke, arratsaldeetan. Esperientzia. ☎ 685 185 462

Adinekoak zaindu eta garbiketa lanak egiteko prest nago. ☎ 650 152 866

Adinekoak zaindu eta garbiketa lanak egiteko prest nago. Arratsaldez edo gauzez. ☎ 690 134 485

Arotz edo pintore lanetarako eta adinekoak zaintzeko prest nago. Arduratsua eta fidatzekoa naiz. ☎ 617 773 202

Adinekoak edo umeak zainduko nituzke. Etxeko langile moduan edo orduka. ☎ 612 422 256

Adinekoak edo umeak zainduko nituzke. Etxeko langile moduan edo orduka. ☎ 602 843 984

Orduka egingo nuke lan. Umeak zaintzen esperientzia daukat. ☎ 612 202 116

Lan bila nabil. Adinekoak zaintzen esperientzia daukat. ☎ 617 810 065

Adinekoak zainduko nituzke. Esperientzia daukat. ☎ 632 875 808

Adinekoak eta umeak zaintzeko prest nago. Esperientzia daukat. ☎ 612 250 984

Adinekoak eta umeak zaintzeko prest nago. Orduka, zein asteburuetan. ☎ 678 112 785

Adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago. Etxeko langile moduan ere bai. Berehala hasteko prest. ☎ 644 558 390

Adinekoak eta umeak zaintzeko prest nago. Garbiketa lanak ere egingo nituzke. Orduka. ☎ 612 296 098

Adinekoak eta umeak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago. Titulua eta esperientzia ditut. Euskalduna naiz. ☎ 629 490 986

Eskaintzak

Bi ume zaintzeko pertsona bat behar da, irailetik aurrera. Astelehenetik ostiralera, 8:00etatik 9:00etara eta 16:30etik 17:40ra. ☎ 653 745 992

ETXEBIZITZAK.....

Etxea hartuko nuke alokairuan Elgoibarren. Lan kontratua daukat. ☎ 632 587 760

Estudioa hartuko nuke alokairuan Elgoibarren. Arduratsua naiz. Erreferentziak ditut. ☎ 666 197 831

Etxea alokatzen dut Donostian, Antigua auzoan. Abuztuaren 18tik irailaren 15era. Hondartzatik 5 minutura. 55m², berriztatuta, igogailuarekin. 2 logela, bainugela, egongela-jangela eta sukaldia. WIFI konexioarekin. Hamabostaldia: 1600€ ☎ 699 02 77 34

BESTELAKOAK.....

Urrezko kate bat aurkitu dut Aita Agirre plaza inguruan. ☎ 943 748 864

KINTOAK.....

1947an jaiotako kinto bazkaria, ekainaren 8an 13:30ean argazkia, Kalegoen Plazan. Jarraian, Ibai Ondo tabernan luntxa.14:45ean bazkaria Sigma jatetxean. 65 euro sartu behar dira, kontu honetan, ekainaren 1erako: 3035 0007 24 007 1063126 (Laboral kutxa). ☎ 647 647 270 (Camilo Otero) ☎616 048 946 (Pedro Bergara).

Merkatu txikiko iragarkiak hiru astez argitaratzen ditugu. Salmenta eta alokairu iragarkiak ordaindu egin behar dira. Etxebizitzak, garajeak eta lokalak: 18€ (alokairua) - 22€ (salmenta). Autoak saltzea: 18€ . Bestelakoak: 10€. Iragarkiarri erretratua jarriz gero, 6€ gehiago ordaindu behar dira.

BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK:

Etxebizitzak, garajeak eta lokalak: 15€ (alokairua) - 20€ (salmenta). Autoak saltzea: 15€. Bestelakoak: 8€. Iragarkiarri erretratua jarriz gero, 5€ gehiago ordaindu behar dira.

administradores

Consejo Escolar de Colegios de Administradores de Empresas
Euzkoako Enpresa Administrazioaren Erakunde Nazionala



ROSA M^a PINTADO

Etxaldean Administrazioarako-Gradu ikasketen arduraduna Alcala de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749

660 969 679
rosapf@telefonica.net

Zuzendaritzako karguak berritzera doan komunitatean bizi naiz. Estatutuetan garajea elementu banaezin moduan ageri da, elementu komunetan %21eko partaidetzarekin. Jakin nahi nuke zuzendaritzako presidente edo idazkari izan daitekeen garajeetako jaberren bat. Gainera, garaje jabe batzuk beraien plaza itxi egin dute, hormak elementu komunetan eginez. Ez dutenez baimenik eskatu, jakin nahi nuke garajeen komunitateko baimena behar duten edo eraikin guztiarena.

Hasteko, garaje jabeen artean aukeratutako bat izan daiteke presidente edo idazkari batzarretara joan eta bozkatzeko. Gero eraikineko etxejabeen batzordeak aukeratu beharko du ordezkaria.

Bigarren galderari dagokionean, garaje bat ixtea garajeen komunitateari dagokion ekintza da, beraz, Kode Zibileko Ondasunen komunitatea arautzen duten baldintzen arabera aztertu behar da. Printzipioz, ekintza hori printzipio horien kontrakoa da, baina beharrezkoa da Ondasunen Komunitateko barne araudia ezagutzea seguru egoteko.

Obra horrek ez badie kalterik egiten elementu komunei, Etxejabeen Komunitate Orokorrek ezingo du kontra egin, etxejabe batek bere etxe barruan horma bat jartzen duenean egiten ez duen bezalaxe.

ONDORIOA: Eman dituzun datuen arabera, ez du ematen hormak elementu komunetan jarri izanak eraikineren segurtasun eta erresistentziari eragiten dionik. Kontrara izan balitz, Komunitate Orokorrek, Garajeetako Komunitateak edota edozein etxejabe norbanakok hasi ditzake erreklamazioak.

NORFO



Argazkiak eguazten eguerdia (12:00ak) baino lehen ekarri behar dira BARRENeko bulegora, edo barren@elgoibarkoizarra.eus e-postara bidali.



Zorionak, **Sare**, asteazkenean 8 urte bete zenituelako. Muxu handi bat denon partez. Maite zaitugu.



Zorionak, **Jon**, igandean 4 urte beteko dituzelako. Etzekoen, eta bereziki, leirerren partez.



Zorionak, **Arhane**, ekainaren 5ean 11 urte bete zenituelako. Patxo handi bat, etzekoen partez.



Zorionak, **Maite**, maite zaitugun guztien partetik! Segi bizitza gozatzeko eta gozazten beste 50 urtean!




Zorionak, **Peio**! Atzo 3 urte bete zenituen. Muxu handi bat etzekoen, eta bereziki, Danelen partez.



Zorionak, **Jone**! Astelehenean denok ospatuko ditugu zure 10 urteak! Aupa neska! Muxuak.



Zorionak, **Noa**! Ondo pasa eguna. Etzekoen partez.



Ainhara eta Sergio, mila esker zuen ospakizun bikainaren parte egin gintuzelako. Eguraldi, giro eta konpainia ezin hobean, paregabe pasatu genuen. Zorionez eta maitasunez berriko bizitza opa dizuegu. Zuen lagunak.



Zorionak, **Jon eta Javier**, bihar 7 urte beteko dituzuelako. Muxu handi bana, familiako guztien partez.



Zorionak, **Maddi eta Haizea**, ekainaren 4an 9 urte bete zenituztelako. Muxu handi bana, etzeko guztien partez.

IKASBAI
AKADEMIA

IKASGO
ACADEMY

Basarte 13, behea · Elgoibar
akademiaeigoibar@gmail.com

AURREMatrikula EPEA
ZABALIK
2019-2020
667 261 248
(Leire)

- INGELES ERREFORTZUA
- LH ETA DBH
- CAMBRIDGE AZTERKETAK
- GAI GUZTIAK
- TALDE TXIKIAK
- EUSKARA ERREFORTZUAK

RFPS 183112

40.
urteurrena
UZURI
optika audio

ELGOIBAR - DEBA

San Frantzisko, 21 - Elgoibar
Tel.: 943 740 359

www.uzurioptika.com

► Ekaineko eskaintza:

%15eko beherapena eguzkitako betaurrekoetan (beste deskontuekin ez metagarria)

► Ekaineko zozketa:

2 Oakley bisera

1978

Aurreko hilabeteko sarituak:
IDOIA AGIRREGOMEZKORTA
eta
IGNACIO RODRIGUEZ

7 BARIXAKUA

19:00 Inazio Bereziartuako dantza ikasleen kurtso bukaerako jaialdia, Kalegoen plazan.

19:00 Kantaldia, Mendaron. Ameikutz musika eskolak antolatuta. Musika eskolako ikasleez gain, elizako abesbatzak eta Txarangak ere parte hartuko dute. Herriko Enparantzan.

21:30 Koplaldia: Elgoibarko Kopla Txapelketa. Elgoibarko Izarrak antolatuta, Bokatokian. Euria egiten badu, Gaztetxean.

21:30 Zine foruma: *La chica danesa*. Loredi Salegik dinamizatuko du saioa. Haizeak antolatuta, Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

8 ZAPATUA

Mendaroko Ikastolaren Eguna

10:00 Erakusketa.

14:00 Bazkaria.

15:30 Jolasak, dantzak, aurpegi margo-tzea...

9:00-10:00 Kaleko margo lehiaketarako izenematea. Kultur Etxeko sotoan. (18 urtetik gorakoentzat). Antolatzailea: Egur.

9:30 Elgoibarko zuhaitzak ezagutzeko irteera. Morkaikok antolatuta, Andoni Segundo izango da gidari. Kultur Etxean bertuko dira.

13:00-14:00 Kaleko margo lehiaketarako lanak entregatzea. Kultur Etxeko sotoan.

14:30 Kaleko margo lehiaketako sari banaketa. Kultur Etxeko sotoan. Lanak ikusgai jarriko dituzte sotoan bertan, hilaren 16ra arte.

13:15 C.D. Elgoibarren denboraldi amaierako bazkaria. Maalako parkean.

9 DOMEKA

11:00 Zumba erakustaldia. Olaizaga kiroldegian.

10 ASTELEHENA

18:00 Emakumeentzako jabe-kuntza tailerra: *Sexualitatea eta feminismoa*. Loredi Salegik gidatuko du. Kultur Etxeko hitzaldi gelan. Antolatzailea: Berdintasun Saila.

11 MARTITZENA

17:30 5,6 eta 7 urtekoen jaialdiak, Elgoibarko musika eskolako auditoriumean.

12 EGUAZTENA

17:30 5,6 eta 7 urtekoen jaialdiak, Elgoibarko musika eskolako auditoriumean.

13 EGUENA

19:00 Isiltasun Eskolako meditazio saioa. Kultur Etxeko sotoan.

19:00 Ameikutz musika eskolako ikasurte amaierako jaialdia. Herriko Enparantzan.

19:30 Musika Eskolako talde finkoen kontzertua. Herriko Antzokian.

14 BARIXAKUA

18:30 Teo Martinez Gorrotxategiren argazki erakusketa. *Nostalgia y Vanidad*. Ongarri Argazki Taldeak antolatuta, hilaren 29ra arte, Kultur Etxeko erakusketa gelan.

19:00 Musika Eskolako talde finkoen kontzertua. Maalako parkean. Antolatzailea: Musika Eskola.

22:00 BirakaTube. Biraka dantza taldearen emanaldia, Mendaroko frontoian.

22:30 Udal Musika Bandaren kontzertu berezia. Kalegoen plazan.

ARAMBURU

BITXIDENDA

San Frantzisko, 28
Tel./faxa: 943 742 535

Etorri eta ikus itzazu!



Dendako
hainbat erlojutan
%20 eta %50eko
deskontua

Ekaina eta Uztaia bitarteko sustapena

Botika ordutegiak 09:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

| GUARDIAK | | Egunez: 09:00-20:00 | | Iluntzean: 20:00-22:00 | | Larunbatak: 9:00-14:00 (*) | |
|----------------------|---------------------|---------------------|--------------------------|--------------------------|----------------------------|----------------------------|-------------------------|
| 7 BARIXAKUA | 8 ZAPATUA | 9 DOMEKA | 10 ASTELEHENA | 11 MARTITZENA | 12 EGUAZTENA | 13 EGUENA | 14 BARIXAKUA |
| Egunez *Fernandez | Egunez Yudego | Egunez Yudego | Egunez *Oruesagasti | Egunez Barrenetxea | Egunez *Ibañez | Egunez Garitaonandia | Egunez Etxeberria |
| Iluntzean Yudego | Iluntzean Yudego | Iluntzean Yudego | Iluntzean Barrenetxea | Iluntzean Barrenetxea | Iluntzean Garitaonandia | Iluntzean Garitaonandia | Iluntzean Etxeberria |

* Fernandez:
Herriko enparantza 4,
Garagartza (Mendaro)
943 756 142

* Ibañez:
Rekalde, 1 (Soraluze)
943 751 638

* Oruesagasti:
Kalebarren, 9 (Soraluze)
943 751 384

Urte guztian, gabez: 22:00-09:00
Zulueta. San Agustin kalea, 5 (Eibar)
943 820 498

SAN ANTONIO JAIK, AIASTIAN

8 ZAPATUA

11:00 Meza, Aiastiako ermitan, Don Benantzio erretoreak eskainita.

Ondoren, salda eta txorizoa.

12:00 Baltzola eta Andonegi trikitilariak giroa alaituko dute.

12:30 Afizionatuen eskuz binakako partida, Murkaikupe frontoian.

14:30 Bazkaria. Txartelak salgai daude: Armueta, Ziarda, Sahatzu eta Auto Servicio Arrizabalagan.

Ondoren, dantzaldia, Baltzola eta Andonegi trikitilariekin.

URRUZUNOKO JAIK

8 ZAPATUA

17:30 Meza, bailarako hildakoen alde. Elkarteko atarian.

Ondoren, luntxa, elkartean.

Segidan, umeentzako jolasak eta trial sin proba.

21:30 Afaria, trikitilariak girotuta. Urruzunoko elkartean.

Maiatzean hildakoak

• Jose Zabala Larrañaga

87 urte, maiatzak 13

• Ernesto Agirre Abasolo

93 urte, maiatzak 15

• Javier Artolain Azurmendi

84 urte, maiatzak 15

• Antonio Romera Ramos

71 urte, maiatzak 29



ETXEBERRIA

EHORZKETA-BEILATOKIA

943 741 327 (24 orduz)

635 756 295

629 635 203

Santa Klara, 16 - Elgoibar
info@funerariaetxeberrria.com
www.funerariaetxeberrria.com

Kutxak, trasladoak eta koroak.
 Norbanakoei eta konpainiei zuzenduriko zerbitzuak.
 Erietxe zentruetan zerbitzuak.



1964

Astelehen iluntzean hil zen Angel Bazterretxea, Mendaron 54 urtez abade izan dena, eta asko izan dira herritarrek haren omenez bidali eta edo ekarri dizkiguten erretratu zaharrak. Leire Arriolak lagatako bat ekarri dugu hona, jendetsuena. Satorraranen egindako argazkia da, 1964. urtekoa, Azpilgoetakoeek Garagartza auzokoen kontra jokaturako partida egunekoa. Ikusi ditzagun nortzuk diren argazkikoak.


Zutik: Ignacio Orbegozo (†), Juan Jose Arrillaga, Jose Antonio Egiguren, Jose Mari Zabala, Jose Mari Berasaluze, Jose Angel Andonegi (†), Jose Agustin Arriola, Jose Luis Zabala, Angel Bazterretxea (†), eta Bonifacio Diez (†). **Behean:** Jose Antonio Iriondo Baldini (†), Jose Luis Zubiaurre (†), Gregorio Garate, Jose Mari Arrizabalaga, Felix Arrizabalaga eta Felix Beloso.

LAGUNAK
colchoneria textil hogar
Bisita gaitzazu!

**BEHAR DUZUN HORI
NEURRIRA JOSIKO DIZUGU!**

- Neurriera egiten ditugu estore, gortina, panel japoniarrak...
- Tapizatuak egiten ditugu, sofa, eserleku eta oheburutan.
- Ohialetan aukera zabala.

San Roke kalea, 20 - Elgoibar - 943 744 457 - 685 756 978 - www.textillagunak.com





PERFUMERIA
USAINDEGIA

Arauri

Eskerrik beroenak
gure bezero guztientzat
urte guzti hauetan
gugan izandako
konfiantzagatik



San Bartolome, 6 - Elgoibar



943 741 789



688 742 452

HURRENGO BOE SUSTAPENA ELGOIBAR OLASOATEN



IZENA EMATEKO EPEA ZABALIK
EKAINAREN 24ra ARTE



943 31 68 68

www.sukia.com

 **sukia**

Zure etxean zaude **Estás en tu casa**